

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 465/2017 Erabakia, abuztuaren 3koa, behin betiko onartzen dituen Kanpezuko udalerrian ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzoruen mugak**

Maiatzaren 4ko 241/2017 Foru Aginduaren bidez, behin-behineko onartu zen ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzoruen mugaketa, zeina Kanpezuko udalerriri baitagokio eta ekainaren 21eko 152/2016 Foru Aginduak, Kanpezuko udalerriko hiri antolamendurako plan orokorraren espedientea behin betiko onartzearenak, ezarritakoaren arabera egin baitzen.

Uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duenak, 4. idatz zatiko 11. artikuluan ezarritako 15 eguneko epearen barruan, Kanpezuko Udalak egoki irizitako alegazioak aurkezteko aukera izan du, eta zenbait alegazio aurkeztu ditu 2017ko maiatzaren 26ko idazki baten bidez, zeinak Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuko teknikariek aztertu baitituzte, eta haien ondorioz hainbat aldaketa egin dira, Antoñanako lurzoru urbanizagarriaren mugaketari dagokionez (R1 A sektorea); horiek horrela, mugaketa hori maiatzaren 4ko 241/2017 Foru Agindua onartu aurreko egoeran mantendu behar da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzoruen mugaketa, zeina Kanpezuko udalerriri baitagokio eta ekainaren 21eko 152/2016 Foru Aginduak, Kanpezuko udalerriko hiri antolamendurako plan orokorraren espedientea behin betiko onartzearenak, ezarritakoaren arabera egin baitzen.

Bigarrena. Hori gorabehera, kontuan izan behar da uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zergarenak, 3.2.b) artikuluko a', b', eta c' idatz zatietan ezarritakoa, hiri izaerako eraikinek okupaturiko eta herriguneetatik kanpo kokaturiko lurzoruen tratamendurako.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn eta lurralde historikoan zabalkunde handiena duten egunkarietan argitaratuko da. Gainera, jendaurrean egongo da 15 egun, egoki irizitako erreklamazioak jar ditzaten interesdunek. Kanpezuko Udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duenak, 11. artikuluen 5. idatz zatian, eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak, 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abuztuaren 3a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ**

*Ogasun zuzendaria*

**TERESA VIGURI MARTÍNEZ**